

URUMEAKO Kronika

2016/06/13



HERNANI Ekainak 13



Lourdes Odriozola historiagileak ikerketa sakona egin du, erakusketa osatzeko.

[albisteak](#)//SAGARDOAREN LURRALDEA LOURDES ODRIUZOLA OIARBIDE

«Jendea kokatzen zen garai hartako autopistaren inguruan; ibaiaren inguruan»

Dozenaka artxibo eta funts ikertu ditu Lourdes Odriozola Oiarbide historialariak, eta lan horretatik, besteak beste, ireki da 'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketa. Asteazkenera arte bisitatu daiteke, Biterin.

HERNANI ASTIGARRAGA

2016/04/23 00:00 Larunbata

Asteazkenean ireki zuten, Hernaniko Biteri kultur etxean, Sagardo ibaiak, bizitza iturri erakusketa. Datorren asteazkenera arte ikusi ahal izango da, eta egunero, 19:00etan, bisita gidatuak egingo dira.

Horixe bera egin zuen inaugurazio egunean Lourdes Odriozola Oiarbide, Astigarragako Sagardoetxeako historialariak. Urte luzeetan egindako ikerketari esker osatu da erakusketa. Aurrerago, Astigarraga, Usurbil eta Donostiako Aquariumean ere jarriko dute; denen elkarlanari esker osatu baita.

Urumea eta Oria ibaiek sagardoarekin izandako lotura zein izan den azaldu duzue erakusketa honetan, baina ez da egiten duzuen aurrenekoa, ezta?

Oraingoan, eguneroko lanarekin zerikusia duena egin dugu. Erakusketa guztien atzean beti dago ikerketa. XVI, XVII eta XVIII. mendeetako artxiboak ez dauzkagu, oso sakabanatuta baitaude, baina biltzen ari gara. Orain bi-hiru urte sagardogintza eta baserrien arteko lotura ikertzen ari ginela, Murgiako Markesaren funtsean agertu ziren ibaiak.

Zein zen lotura, ibaien eta eguneroko lanaren artean?

Gipuzkoan, XIX. mendean trena iritsi zen arte, ibaiari begira bizi ziren herriak. Jendeak sa-gastiak zituen, baina ibaia ere gertu zuten, adibidez, arrantzarako, edo ura edateko. Poliki-poliki konturatu ziren ibaiak balio zuela lurra ematen ez zuena lortzeko. XIII. mendean, dagoeneko, merkataritzarako erabiltzen zen Usurbil, Hernani, Astigarraga edota Donostia artean. Horregatik jendea kokatzen zen garai hartako autopistaren inguruan; ibaiaren inguruan. Horrela sortu ziren gizarte-harremanak eta hainbat lanbide. Eta noski, ibaiari etekina ateratzeko, azpiegiturak behar ziren. Erakusketa ere hiru zatitan antolatu dugu: gizarte-harremanak eta antolakuntza, azpiegiturak, eta ekonomia.

Azpiegituren artean, Hernaniko 7 portuak nabarmentzekoak dira?

Urumean baziren 16 bat portu, Santa Katalinatik Fagollagara, eta Orian, 6-7 inguru. Hernanin bertan zazpi zeuden: Osiñaga, Fagollaga, Arbiza-Portu, Caparote, Zikuñaga, Epele eta Portu bera. Azken hau Udalarena zen, eta garrantzia haundia hartu zuen. Beste batzuk pribatuak izaten ziren. Santa Katalina eta Porturekin batean, Ergobiako portua ere garrantzitsua izan zen; zubian peajea ordaintzen zen. XV. mendetik aurrera, Urumea izan zen bide nagusia Donostia eta Gipuzkoa barnealdea edota Nafarroa lotzeko, eta eramateko abereak, burnia, sagardoa sutarako egurra, arraunak...

Sagardoa eramateko ibaia ezinbestekoa bihurtu zen?

Gipuzkoa aldatu egin zen XV. mendetik aurrera: bake garaia iritsi zen, ekonomiak gora egin zuen, aurreneko harrizko baserriak eta tolaireak eraikitzen hasi ziren, gizarte-harremanak aldatu ziren... Jateko gehiago behar zen; beraz, sagardoa negoziarako erabiltzen hasi zen, eta ibaiaren bidez garraiatzen zen. Aldi berean, Gaztelako bi koroak elkartzean, Europako lurralde indartsuenetakoa bihurtu zen, eta garai hartan, boterea zuen itsasoa kontrolatzen zuenak. Horrela, edozein bidaia luzetan beti eramaten zen sagardoa.

«Lanbide asko sortu ziren ibaien inguruan: ontzigintza, aingura fabrikak... Urumean oso famatuak egin ziren garbiketari aritzen ziren emakuek»

Ternuako bidaia famatuetan?

Ez bakarrik Ternuara joateko! 1769ko medikuntza liburu bat badago, Real Compañia de Caracasekoa, eskorbutoa eta sagardoaren arteko lotura argitzen duena. Amerikak egiteko edozein merkataritza edo armada itsasontzitan ez zen sekula falta sagardoa. Marinel bakoitzeko, eguneko 2-3 litro sagardo eramaten zen. Olioak, bizkotxoak eta sagardoa eramaten ziren, beti. Eramaten zen janariak kaloria asko, baina nutriente gutxi zituen, eta ez zuten jakin, berandu arte, janari freskoaren faltagatik, C bitamina faltagatik, gaixotzen zirela. Sagardoak ematen zien hori. Bitxikeria asko ere bildu ditugu erakusketan; adibidez, James Cook, Australia aurkitu zuenak, arratoiak janarazten zizkien marinelari. C bitamina sintetizatzen duen animalia bakarra da, eta barkuetan ez dira sekula falta! Horrela, marinelak ez ziren hiltzen!

Lanbide gehiago ere sortu ziren, ibaiei lotuta?

Ikaragarri! Sagardogintza, burnigintza, ontzigintza, tona edo tolareak egiteko arotzen lana, aingura fabrikak... Garraioarekin ere, pentsa! Idi eta gurdi jabeak aberastu egin zitezkeen! Izan ere, ibaiak puska batzuetan ez ziren oso sakonak, eta gabarra edo alak ezin ziren ia pasa. Beraz, idiekin lotu eta eramaten ziren. Gabareroen lana ere sortu zen, biltegietan aritzen zirenean, karga eta deskarga... Eta Urumean, adibidez, oso famatuak egin ziren garbiketean aritzen ziren emakumeak. Ibaiei esker, inguru hauek puntakoak ziren teknologian.

«Gipuzkoan, XIX. mendean trena iritsi zen arte, ibaiari begira bizi ziren herriak»

Teknologian puntakoak, nola?

Oria ibaia puntakoa zen ontzigintzan; Miguel Antonio Mutiozabal izan zen Euskal Herrian aurreneko baporea egin zuena, bertako motor batekin. Urumea, berriz, aingura fabriketan izan zen punteroa. Gipuzkoa onena zen burnia egiten, baina ez zeukaten aingurarik. Orduan hasi zen espioitza industrial! Aiako Arranzubiako burniolatik Holandara joan ziren, hangoa kopiatu eta hobetzeko, eta Arranzubiako burniarekin hasi ziren egiten. Gero, errege fabrika irekitzeko proiektua egon zen, eta Errenterian hasi ziren eraikitzen, sekulakoa. Baina hainbat iskanbila izan ziren, Udalak ezetz esan zuen... Eta tartean sartu zen Hernaniko Larramendi, eta Hernanin eraiki zen; Ereñotzun eta Fagollagan. 10 urte bakarrik iraun zituen, baina denetik izan zen: erregeak ez zituela ordainketak bete, langileen aurreneko greba 1750ean... Aingura fabrika itxita ere, jarraitu zuten lanean. Kuriosoa da; Ciudad Realen dago agiri bat, 1789koa, azaltzen duena nola egin aingura bat, euskeraz!

Baina teknologian punteroak izanda, nola iritsi zen gainbehera?

XIX. mendeko iraultzen ondorioz, ibaiek garrantzia galdu zuten: garraio iraultza, industria iraultza, pentsamendu iraultza... Aurrena, trena sartu zen. Ordura arte ibaiak ziren garraibide azkar eta merkeenak. Baina trena, azkarragoa eta merkeagoa da, eta distantzia kontzeptua ere aldatu egin zuen. Bestetik, XVI. mendean errege bidea pasatzen zen inguru hauetatik, eta XVIII. mendean, Hernani, Astigarraga eta Oiartzundik. Baina XIX. mendean errepide nagusia, gaur egun N-1 dena ireki zen Andoain eta Donostia artean, eta hau baztertua geratu zen. Eta azkenik, industrializazioak urak zikindu zituen, eta beste sektore batzuk indartu zituen: Donostian, finantzak eta tabernari eta ostalarien sektoreek egin zuten gora: aisialdiak.

«Orduan hasi zen espioitza industrial! Aiako Arranzubiako burniolatik Holandara

Orduan, sagardogintzak ere gainbehera izan zuen?

Ibaiekin segi egin zen sagardogintzan, baina aisialdiaren bueltan, eta euskeraren inguruan. XIX-XX. mendeetan sartu zen sagardoa kanilletatik edateko ohitura, sagardotegietan, aisialdirako. Eta sagardotegiak euskera suspertzeko txoko ere bihurtu ziren.

Hau guztia ikertzeko, ate asko jo behar izan dituzu?

Saiatu gara hemengo funtsak zabaltzen: Zumalakarregi, Gure Gipuzkoa, Eusko Ikaskuntza, Hernaniko Fototeka, Sagardoetxea, eta Murgia Markesarena! Bestetik, Oñatiko Protokolo Artxiboa eta Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorra begiratu ditut, eta Zaragozako, Simancasekoa, Sevillako Indietako Artxibo Orokorra... Askotan kanpora joaten gara, hangoak ezagutzera, eta ez ditugu hemengo altxorak ezagutzen.

Ibilaldia, erakusketa eta sagardotegia, biharko plana

Astigarragatik 10:00etan atera eta Hernanira ibilaldia egingo da bihar.

Sagardoaren Lurraldearen bueltan hitzarmena sinatu duten hiru udalerriek (Hernani, Astigarraga eta Usurbil) eta Donostiako Aquariumak elkarlanean antolatutako erakusketa da Biterin jarritakoa; Sagardo ibaiak, bizitza iturri. Aurrerago, herri horietara ere eramango da erakusketa.

Horrez gain, bihar ibilaldia, erakusketan bisita gidatua eta Akarregi sagardotegian bazkaria egingo dira, izena ematen dutenentzako.

Sagardogintzaren eta ibaien arteko sekretuak ezagutzeko plana, biharkoa

Ibilbidea goizeko 10:00etan hasiko da, Astigarragako Sagardoetxean, eta Murgia Markesaren jauregian eta Ergobiako zubian egingo dira hurrengo geldialdiak, Lourdes Odriozola historialariaren azalpenak entzuteko. Martindegin barrena, Epele-Ereñotzurako bidea hartu, eta Lastaola poligonoan, Jexux Mari Gomez, Hernaniko artxiboko arduradunak emango ditu azalpenak. Osifñagatik barrena Portu auzora iritsiko dira, eta han ere, Gomezek hainbat azalpen emango ditu.

Segidan, ibilaldian zehar ikusitako bitxikerien inguruko azalpen osoagoa emango da erakusketan, bisita gidatuan. Bukatzeko, Akarregi sagardotegian bazkaldu ahal izango da. Izena emateko: 943 55 05 75/info@sagardoarenlurraldea.com

ARGAZKIAK